

«Udalerri euskaldunak gaur egun ez dira hain euskaldunak»

UEMAk eskatuta, Soziolinguistika Klusterrarekin egin du ikerketa lana Iñaki Iurrebaso soziologoak. Udalerri euskaldunetako bilakaera soziolinguistikoa EAEn, 1981-2011 du izena azterketak. Euskalgintzak antzemandu zuen joera baieztatu baino ez da egin ikerketan, udalerri euskaldunak erdalduntzen ari dira, eta azken hamarkadan azkarrago.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Ikerketa lan honetan euskararen bilakaera neurtzeko hiru aldagai hartu dira kontuan.

Hautu metodologikoak baditu bere mugak. Erroldetan euskararekin lotutako hiru gai lantzen dira: hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntza, eta etxeko erabilera. Hiru aldagaiak oso garrantzitsuak dira, ez dira pitokeriak, baina ez dira aldagai bakarrak: lan mundua, hedabideen kontsumoa, hezkuntza... informazio hori ez dago. Beraz, argazkia ez da oso-oso.

Zein dira ikerketa gai diren udalerri euskaldunak?

126 udalerri dira, EAEko udalerrien erdiak. Herriotan 335.000 biztanle bizi dira, EAEko herritarren %15. Datu hori inportantea da, herritarren %85 gainerako herrietan bizi da. Udalerri euskaldunak diogunean UEMAren irizpidea ari gara kontuan hartzen, alegia, udalerriotan euskararen indizeak %70 gainditzen du. Indizea honela kalkulatzeko da: herri horretako euskaldunen ehunekoa gehi ia euskaldunen erdiak. Ia euskaldun deitzen zaie ulertu bai baina hitz egiteko gai ez diren hiztunei. Praktikan, euskaldunak %60tik gora dituzten udalerriak ditugu multzo horretan, horiei deitu diegu, UEMAren irizpideari jarraituz, "udalerri euskaldun".

Zein da ezaugarri demografiko azpimarragarria?

Txikitasuna. Azken urteetan, oso modan dago euskara modernitatearekin, hiritar izaerarekin lotzea. Egia da hortik bide luzea egin dela, baina oraindik ere batez beste euskara herri txikietan handietan baino askoz indartsuago dago. Udalerri euskaldun bezala definitu ez ditugun horietako biztanleen bi herenak herri handietan edo hiriburuetan bizi dira, 25.000 biztanletik gorako herrietan. Aldiz, udalerri euskaldunetan ez dago herri bakarra 25.000 biztanlera iristen denik. Bi mundu dira. Orain dela 30 urte, seguru asko desoreka handiagoa izango zen, baina oraindik horrela da.

“Argazkiak erakutsiko digu udalerri euskaldunak elebitasunetik gertuago daudela euskaldun purutasunetik baino”

Zerk eman dizu arreta?

Udalerri euskaldunak multzoan hartzen baldin baditugu, alegia, Errezildik Tolosara denak batera, nolabait esateko, argazkiak erakutsiko digu elebitasunetik gertuago daudela euskaldun purutasunetik baino.

Herri horietan euskaldunak %72 dira, gazteleradunak %90etik gora izango dira, baina ez daukagu datu-

rik, erroldetan ez baita gaztelanien ezagutzari buruz galdetzen. Gaitasunari dagokionez, euskaldun elebakarrak ia desagertuta, herri horiek ez daukate garai bateko euskalduntasun maila. Etxeko erabilerari dagokionez, gehiago dira etxean gaztelania baino euskara erabiltzen dutenak, baina nahiko parekatuta: %47 euskaraz nagusiki eta %37 gaztelaniaz nagusiki.

Udalerri euskaldun deitzen diegu, besteak beste izendapen hori eman zaielako, baina errealtate soziolinguistikoa gehiago du elebitasun orekatu xamar batetik. Elebitasun soziala Euskal Herrian nonbait egotekotan herri horietan dago. Jende gehienak dakizki bi hizkuntzak, bi hizkuntzak erabiltzen dira.

Hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera aztertu dituzu. Zein da ondorioa?

Hiru aldagaietan ikusten dena funtsean bat dator. Gaitasuna hartzen badugu, EAEn azken 30 urteotan euskaraz hitz egiteko gai diren kopuruak gora egin du nabarmen, baina udalerri euskaldunetan lehengo fasean (1981-1991) pixka bat gora egin zuen, 1991-2001 artean hortxe mantendu zen, eta azkeneko hamarkadan behera egin du. Duela hamar urte baino euskaldun gutxiago dago herri horietan.

Zer gertatu da lehen hizkuntzarekin eta etxeko erabilerarekin?

Bi grafikoak oso berdintsuak dira [ikus hurrengo orrialdean]. Lehen hizkuntzari buruzko datu orokor-
rrak kontuan hartuz, eta EAEri dagokionez, beherakada txiki bat dago. Udalerri euskaldunetan, lehen hizkuntza euskara dutenen kopuruaren beherakada batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da, gehienbat azken hamarkadan.

Harrigarriena etxeko hizkuntza-
rena izan da, udalerri euskaldunetan kuantitatiboki hartu duen joera. 2001etik 2011ra nagusitu den erre-
litate soziolinguistikoak —er-
dara geroz eta gehiago etxeetan eta eus-
kara geroz eta gutxiago— erritmo berean segituko balu 30 urtez, kon-
turatzerako gurutzatu egingo lirate-
ke, eta hemendik 40 urtera non kokatuko litzateke? Ez dut uste hori gertatuko denik, besteak beste, neu-
rriak hartuko direla pentsatu nahi dudalako. Serio hartzeko erre-
litatea iruditzen zait.

Nola azal daiteke etxeko erabilera horrela jaitea?

Gu ez gara azalpenetan sartu, ez dugu hori ikertu. Botako ditudan ideia guztiak hipotesiak dira. Per-
tsonen fluxuari lotutako faktoreak begiratzen baditugu, bertako hain-
bat jende kanpora joan da bizitzera eta kanpoko jendea bertara etorri da. Joan diren ia denak euskaldun osoak dira eta etorri diren horietako batzuk ez dira euskaldunak, edo euskaldunak izanda ere gutxiago erabiltzen dute euskara.

Zeintzuk etorri dira kanpotik? Familia osoak batetik, eta bikote-
kideak bestetik. Herri txikietako etxebizitza eskaintzak erakarri ditu nagusiki kanpoko familia asko. Bikotekideen kasuan, nahiz eta pertsona bakarra izan, etxeko hiz-
kuntza ohiturak alda ditzake fami-
lia euskaldunera kide erdalduna etortzen denean. Estatistiketan euskaraz ez dakien pertsona bat da, baina etxean euskaratik gazte-
laniara igarotzea eragin dezake. Etxean bezala, lagunartean eta inguru zabalagoan eragin dezake. Herri txikietan, gure adinekoen guraso eta aiton-amonak herri ber-
tako edo gehienez ondoko bailara-
koekin ezkontzen ziren. Gure belaunaldian ez da arraroa bikote-



Paperak mahai gainean jarrita azaldu zuen hurrengoa: "Hemen N1 errepidea dago. Hemen Bilbo-Donostia autopista. Hemen trenbidea. Euskalduntasun mailari eusten dioten herriak garraiobide nagusietatik aparte samar daude: Baliarrain, Oresa, Amoroto, Abaltzisketa, Beizama, Gaztelu, Gaintza..."

kidea urrutiago bilatzea... eta lin-
guistikoki perfil desberdinak dituzte.

Jendearen fluxuek eragindako aldaketak dira horiek denak. Beste kontu bat da bertako etxeetan berez zein aldaketa gertatu diren. Adibi-
dez, hedabideen kontsumoa euska-
raren ikuspegitik. Zarautzen egin genuen ikerketa duela bederatzi urte. Elebidunak %71 ziren, euska-
raren kaleko erabilera %66, etxeko erabilera %48, eta euskararen erabi-
lera telebista ikusterakoan %20. Prentsa irakurketa euskaraz %20, eta *Hitza* sortuta zegoen. Hedabi-
deen kontsumoan agertzen zen, beraz, euskararen erabilera ahulen. Herri euskaldunetako etxeetan ger-
tatzen ari den bilakaerarekin zeriku-
sirik ba al du horrek? Baietz esango nuke. Duela 40-50 urte ia telebista-
rik ez zen, eta gaur egun lau ordu pasatzen dira telebistaren aurrean batez beste. Erdara sartzen da gure etxean eta gure bizitzetan. Hedabi-
deena ez da txikieria.

Lanlekuak ere eragingo du.

Gero eta urrutiago joaten gara lane-
ra, eta herri euskaldunen kasuan,


lantoki erdaldunetara geroz eta gehiago joatea esan nahi du horrek askotan.

Euskarari hobekien eusten dio-
ten herrien isolamendu maila aipa-
garria da. Ikerketako datuetan antzeman daiteke: euskara indar-
tsuen dagoen udalerriak toki isolatu samarrak dira.

Zer esan nahi duzu isolatuak diozu- nean?

[Mapa zabaldu du mahai gainean]. Hemen N1 errepidea dago. Hemen Bilbo-Donostia autopista. Hemen trenbidea. Ez dugu sistematikoki aztertu, baina 1981ean, herri mor-
doxka zeuden euskaldunen por-
tzentajea %90etik gorakoa zute-
nak, tartean: Lizartza, Gamiz-Fika, Maruri-Jatabe... Azken bi hamar-
kadetan euskalduntasun maila hori galdu dute herri horietako gehien-
gehienek eta eusten dioten herriak azkeneko puntan daude, garraiobi-
de nagusietatik aparte samar: Balia-
rrain, Oresa, Amoroto, Abaltziske-
ta, Beizama, Gaztelu, Gaintza, Albiztur, Amezketa, Aulesti... horietan eusten zaio ondo. Gune urbano nagusietatik gertuago dau-

EAEko udalerri euskaldunetan euskararen bilakaera



Iturria: Iñaki Iurrebaso. Soziolinguistika Klusterra.

denetan, ordea, galerak handiagoak izan dira.

Muturreko habitatak desagertze bidean dira. Hau da, udalerri erabat euskaldunak gero eta gutxiago daude, eta alderantziz, udalerri zeharo erdaldunak jada ez da geratzen. Bilakaera logikoa al da?

Logikoa logikoa...

Agian ez da harrigarria?

Ez da harrigarria. Udalerrri erdaldunetan euskaraz hitz egiteko gai diren herritar kopuruak gora egin izana eta erabilerak pixka bat gora egin izana logika baten barruan sartzen da. Ikaragarritzko ahalegina egin da azken hamarkadetan, gehienbat haurren irakaskuntzan, eta emaitzak eman ditu.

Herri euskaldunetan atzera egiteak ere logika badu. Lehen esan ditugunak faktore indartsuak dira, eta horiei aurre egiteko politikak martxan jartzen ez badira normala da emaitza. Faktore konplexuak dira, urbanizazio ereduak, bikoteak eratzeko ohiturak, lantokiak gero eta urrutiago... Horietan eragin al

daiteke? Kasu batzuetan bai, eta horretarako bideak asmatu beharko dira, baina ez dira txikikeriak.

Erdalduntzen ari diren gune euskaldunak eredu ditugu.

Garbi utzi behar dugu datuek erakusten dutena: galera bereziki handia da udalerrri euskaldunenetan, arnaguneetan. Oro har, zenbat eta udalerrri euskaldunagoa, orduan eta handiagoa izan da atzerakada. Beste muturrean, zenbat eta jatorriz erdaldunagoa izan herri eta hiriak, orduan eta gehiago aurreratu du euskarak. Arretaz begiratzeko errealitatea da. Gasteizen edo Bil-

“Buelta ematea ez da hain erraza izango, azpian dauden joerak ez dira pitokeriak, baina hori orekatu dezakeen politika eraginkorrago bat egiteak ez dirudi hain zaila”

bon 100, 1.000 edo 100.000 euskaldun gehiago, oso ondo, bikain. Baina euskararen osasunerako kritikoa da gune euskaldunenetan gertatzen dena. Mikel Zalbidek esana du, “euskararentzat benetako lehentasuna behar du izan arnagune hauei eustekak”.

Udalerrri euskaldunak gaur egun ez dira hain euskaldunak: etxetan ere erdaraz pisu handia du, euskaraz %72k daki, baina erdaraz daki-tenak ez dira hori baino gutxiago.

Azken bi hamarkadetan atzera egin du euskarak eta azken hamarkadan aurrekoetan baino gehiago.

Abiadura hartu du, orduan?

Bai. Seguru asko bi gauza gertatu dira. Batetik, etorkin berrien fenomenoak, eta bestetik, nagusiki, urbanismo ereduak. Hipotesiak baino ez dira.

Orain arte gune erdaldunetan jarri da indar berezia. Orain bestelako egoera batean ote gaude? Gune euskaldunetan eragiteko ordua ez al da?

Nik uste dut baietz. Alde guztietako jendea entzuten diozu horrelako

Nekrosi itzulgarria

BOTILA NOLA IKUSTEN DEN, esan zaigu, “poziktibity” txepelaz. Baina ez dago Iurrebasoren azterketa positiboki irakurtzerik. Udal-erri erdaldunenak ezin baitziren erdaldunagoak bihurtu, soilik matematikoki bada ere. Kontua da udalerri euskaldunak erdaldundu direla; azpimarratu beharreko bi ñabardura garrantzitsuekin: bate-tik, udalerri euskaldunenak direla gehien erdaldundu direnak; eta, bestetik, azken hamarkadan areagotu dela erdalduntze-prozesua. Lehen ñabardura matematikatik ere hein batean azaldu daitekeen- ez, gatozen bigarrenera, euskara- ren desagertze-prozesuaren formulan osagai berri bat mahaigaineratu duelakoan: azken urteotako urbanizazio-eredua.

EAE osoa, eta bereziki ipar-isurialdea, oso urbanizatuta eta artifizializatuta dago. Bizkaian eta Gipuzkoan, zehazkiago, dagoeneko lurzorua %89 baino gutxiago da urbanizaezina (Udalplan); eta, horri gehitu behar zaio landa-lurzor-ruak bildu behar duen azpiegitura-kopuru erraldoia, azken hamarkadan nabarmen areagotutena, lurraldea erabat zatituz, eta natura- eta hizkuntza-ekosistemen biodibertsitatearentzat hain garrantzitsua den jarraitutasun espaziala desintegratuz. 1981-2011 arteko euskararen portzentaje-galera handienak (%20tik gorakoa), esaterako, Mungialdeko Fruiz, Gamiz-Fika eta Maruri-Jataben

jazo dira. Mungialdeko kostaldearen euskalduntzea poztekoa izan arren (Gorliz, Plentzia eta Sopela %17 igo dira), aztertze-koa da Mungia udalerriaren alboan gertatutakoa (Gatikak eta Meñakak ere ia %20 galdu dute). Beste hainbat arrazoiaren artean, nahiko agerikoa da Bilboaldeko “etorkin” erdaldunen eragina, Derio-Mungia autobideak erraztutako urbanizazio-prozesu azkarra tarteko. Emaitzak ikusita, azterketa linguistiko-urbanistikoa Arratiara, Busturialdera eta Tolosaldera ere zabaltzeko garaia da, berandu baino lehen.

Eta badago bigarren osagai bat ere aipatzeko: erakundetzeak dakarren sendotasuna ezin da gutxietsi. Datuak gurutzatuz, las-ter ikusten baita euskaldunen hazkunde negatiboena pairatu duten udalerri euskaldun gehienak UEMATik kanpo daudela. Arratiako kasua argigarria da: 1981-2011n euskaldunen %5eko galera baino handiagoa egon da Arantzazu,



pairatu dute %5eko galera baino handiagoa, eta, horietatik 38 daude UEMATik kanpo: galera hori jazo-tako udalerrien %65. Ondorioa agerikoa da: gure izaera euskalduna babesten duten egitura administrazioak behar ditugu, inoiz baino gehiago; eta, Estatu bat lortu bitartean, UEMA bezalako sareak zabaltu eta indartu. Espainiako Gobernuaren ordezkaria da horretaz konturatu den bakarra?

Azken urteotako hirigintza-eredu inbaditzailea hizkuntza-irizpidez birzuzendu, eta kulturen esparrutik haragoko erakundegiturak euskararen biziberritze-prozesuan eraginkorki baliatu. Zatiketa urbanistiko eta administrazioak areagotutako hizkuntza-nekrosia oraindik itzulgarria delakoan.

Unai Fernandez de Betoño



Arteaga, Dima, Orozko, Ubide, Zeanuri eta Zeberion; bada, zazpi udalerri euskaldun horietatik bakarra dago UEMAn: Arteaga. Mungialdean beste hainbeste gertatu da: galera bera jazo duten sei udalerri euskaldunetatik soilik Gatika dago UEMAn. Orotara, EAEko 126 udalerri euskaldunetatik 59k

gauzak esaten. Ez da behar bezain- besteko arreta jarri udalerri euskaldunenetan zer gertatzen ari den aztertze-ko. Buelta ematea ez da hain erraza izango, azpian dauden joerak ez dira pitokeriak, baina hori orekatu dezakeen politika eraginkor- rago bat egiteak ez dirudi hain zaila. Agian gehiegi esan dut, baina baliabideak behintzat jar daitezke.

Baliabideei dagokionez, ez da gauza bera Bilbo Handia euskalduntzea edo Lea Artibairi eta Urola Kostari eusteko baliabideak jartzea. Kanpo-ko faktoreetan ere eragin behar da, jakina. Baina hizkuntza politikaren betiko bideak ere erabili daitezke. Adibidez, herri txiki euskaldun batean euskaraz aritzen den guraso taldeari guraso erdalduna gehitu

bazaio, ordaindu euskaltegia lehen- bailehen pertsona horri. Gasteizko funtzionarioa liberatzen bada eus- kara ikasteko, ez al da hori bezain inportantea ingurua erdaldundu baino lehen guraso hori euskaldun- tzea? Beharbada esan berri dudana okurrentzia bat da, baina uste dut badagoela betiko bideak erabilia eragiteko tartea. ■